



OINARRIAK

SAN SEVERINOKO PUTXEREN 53. LEHIAKETA

BALMASEDA 2025

1.- DATA

Balmasedako Putxeren Nazioarteko 53. Lehiaketa 2025ko urriaren 23an egingo da.

2.- IZEN-EMATEA

Izen-ematea 9:00etatik 10:30era egin behar da, urriaren 23an bertan, San Severino plazan. Parte-hartzaileen izena eman beharko da, eta zenbakia putxera entregatzeko unean emango da. Halaber, online egin ahal izango da, urriaren 16tik (astelehena) aurrera.

Adinez nagusia den orok izango du izena emateko aukera telematikoki (online), 6 euro ordainduta, edo aurrez aurre, lehiaketa egingo den egunean bertan, 10 euro ordainduta. Izena ematean, Poltsa pertsonalizatu bat, Txumitxa Piparrak bote bat, Euskal Sagardo Botila eta Rios odolkien pakete bat emango da. Horretarako, **nortasun-agiria** aurkeztu beharko da **nahitaez** (adingabeekin batera heldu bat egon beharko du).

Izen-ematearekin bildutako dirua GKE honetara bideratuko da osorik:

NAHIARTE elkarte "Desgaitasun psikikoa edo intelektuala duten pertsonentzako sormen artistikorako gunea"

Gainera, **0 lehiakide** gisa izen-emate solidarioa egiteko aukera ere izango da, eta bakoitzak nahi duen kantitatea eman ahal izango du dohaintzan.

Epaimahaikideek *in situ* gainbegiratu ahalko dituzte, besteak beste, jardunbide egokiak, garbiketa eta zuzentasuna. Hori horrela, deskalifikatu edo zehatu egin ahal izango dute, falta arin edo astun motaren arabera. **Falta astunak izango dira berotzeko baimenduta ez dagoen errekontza-euskarriren bat erabiltzea, bai eta izena eman gabekoek putxera prestatzea ere.**

Izena emateak berarekin dakar datu pertsonalak tratatzea; horrenbestez, Balmasedako Udalak, 15/1999 Lege Organikoa (Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoa) eta 2/2004 Legea betez,

jakinarazten dizu ematen dizkiguzun datuak tratatu egingo direla eta erakunde honen ardurapeko datu pertsonalen fitxategi automatizatueta (Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren DBENn erregistratuak) sartuko direla. Tratamendu horren helburua da udal-kudeaketaren berezko zereginak egitea, udal-eskumenen arloan; legean ezarritako lagapenak egingo dira soilik eta behar bezala babestuta egongo dira. Interesdunek datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurkaratzeko eskubideak egikaritu ahal izango dituzte, Balmasedako Udalera idatziz: San Severino plaza z.g., 48800 Balmaseda (Bizkaia).

3.- BETEKIZUNAK

Parte-hartzaile bakoitzak izen-emate bat egin eta lehiaketan **putxera batekin** parte hartu ahal izango du. Putxera **11:45etik 13:00etara** bitartean aurkeztu beharko da. Aurkeztutako putxerak babarrun-jan tradizionala izan beharko du (**babarrun gorria, beltza edo pikarta**), bizigarri klasikoak onartuko dira eta nahitaezkoak izango dira **txorizoa, odolkia eta urdaia**. Putxera egiteko **erregaiak egurra, egur-ikatz edo harrikatza** izan beharko dira. Edozein tamainatako putxerak aurkeztu daitezke lehiaketara, eta **balorazio bisualean edukiaren proportzionaltasuna** hartuko da kontuan.

4.- EPAIMAHAIA

Balmasedako Putxeren Nazioarteko 53. Lehiaketako epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da (etorkizuneko edizioetarako iradokizunak jasoko dira). Epaimahaia honako hauek osatuko dute, nahiz eta, bajaren bat egoten bada, alkate jaunak ordezkoa izendatuko duen putxerak aurkezten hasi aurretik.

Epaimahaikideek ezingo dute parte-hartzaileekin hitz egin dastatzean (falta astuna).

Epaimahaiaren zuzendaria: Putxeraren Kofradia

Koordinatzaile-burua: Jose Maria Agirre.

Koordinatzaile laguntzailea: Javier Lezama (Putxeraren Kofradia)

Epaimahaikideak: lehiaketa egingo den egunean bertan jakinaraziko dira.

5.- BALORAZIOA

Lehiaketan aurkeztutako putxeren balorazioa eta puntuazioa lau fasetan bereiziko da. Fase horietako bakoitza epaimahaikide desberdinek baloratuko dute.

• **Aurkezpena:**

Epaimahaikide batek oinarrizko alderdi batzuk baloratuko ditu (garbitasuna, babarrunaren egoera eta oinarrizko elementuen kontrola). Epaimahaikide horrek ez du platerik puntuatuko, baina hurrengo fasera pasatuko diren Putxerak erabakitzeke ahalmena izango du.

• **Balorazio bisuala:**

Balorazio bisuala putxerako eltzean egingo da, tapakirik gabe. Aurkezpenaren nota 0 eta 5 bitartekoa izango da, eta **bi epaimahaikidek** puntuatuko dute.

Guztira: 10 puntu.

kontrol-eremua.

Epaimahaikide horrek ez du platerik puntuatuko, baina hurrengo fasera pasatuko diren Putxerak erabakitzeke ahalmena izango du.

• **Itsuki dastatzea edo egosketaren eta zaporearen balorazioa:**

Egosketaren eta zaporearen balorazioa itsuki egingo dute lau epaimahaikidek, portzelana zuriko plater batean. Zaporeari eta egosketa-puntuari 0-10 bitarteko puntuazioa emango zaio. Epaimahaiak erabaki ondoren, balorazio onena jaso duten Putxerak gonbidatu bereziaren dastaketara pasatuko dira.

Guztira: 80 puntu.

• **Gonbidatu bereziaren dastaketa**

Bukatzeko, putxera onenen kasuan lau epaimahaikidek (gonbidatu berezia eta laguntzailea) azkeneko dastaketa egingo dute; putxerari 0-10 bitarteko puntuazioa emango diote, plateraren ezaugarri guztiak kontuan hartuta (presentzia, egosketa eta zaporea).

Guztira: 40 puntu

GEHIENAKO PUNTUAZIOA: 130 puntu.

Berdinketa egonez gero, gonbidatu bereziaren puntuazioa nagusituko da, eta, ondoren, egosketari, zaporeari eta aurkezpenari lotutakoak, hurrenkera hori jarraituz.

6.- SARIAK

Balmasedako Putxeren Nazioarteko 53. Lehiaketaren sari-banaketa urriaren 23an egingo da, **14:30ean**, San Severino plazan. Hala ere, irabazlea harremanetan jarri beharko da Putxeraren Kofradiarekin, eta bere identitatea berretsiko duten dokumentuak eta kontu-zenbaki bat aurkeztu beharko ditu. Saria dirutan jasoko du, horretarako dokumentuak sinatu ondoren. **Sariak ez dira dirutan ordainduko izena emandako lehiakidearen izenean ez dauden banku-kontuetan.**

SAILKAPEN OROKORRA ETA SARIAK

- 1.- 1.200 €. Txapela. “Urrezko Putxera” garaikurra. KOMENTU MAITEA paketea (afaria, gaua hotelean, Loizaga dorrerako 2 SARRERA eta bi pertsonarentzako gosaria Komentu Maitea hotelean), Izadi upategietako Magnum bikoitza. Chocolates Kaitxo sorta bat, Morcillas Ríos produktu-sorta,.**
- 2.- 750 €. Garaikurra. IX jornada del Buey CASA GARRAS ekitaldiko bi menu + Pozalaguako leizeetarako 2 sarrera, Izadi upategietako Magnum bikoitza. Chocolates Kaitxo sorta bat, Morcillas Ríos produktu-sorta,.**
- 3.- 500 €. Garaikurra. TEIKE jatetxean bi menu + 2 sarrera La Encartada museorako, Izadi upategietako Magnum bikoitza. Chocolates Kaitxo sorta bat, Morcillas Ríos produktu-sorta,.**
- 4.- 400 €. Garaikurra. Izadi upategietako Magnum bikoitza, Chocolates Kaitxo sorta bat, Morcillas Ríos produktu-sorta,.**
- 5.- 350 €. Garaikurra. Izadi upategietako Magnum bikoitza Chocolates Kaitxo sorta bat, Morcillas Ríos produktu-sorta,.**
- 6.- Bono denda 300 €. Garaikurra. Izadi upategietako Magnum-a. Chocolates Kaitxo sorta bat, Morcillas Ríos produktu-sorta,.**
- 7.- Bono denda 250 €. Garaikurra. Izadi upategietako Magnum-a. Chocolates Kaitxo sorta bat, Morcillas Ríos produktu-sorta,.**
- 8.- Bono denda 200 €. Garaikurra. Izadi upategietako Magnum-a. Chocolates Kaitxo sorta bat, Morcillas Ríos produktu-sorta,.**
- 9.- Bono denda 150 €. Garaikurra. Izadi upategietako Magnum-a. Chocolates Kaitxo sorta bat, Morcillas Ríos produktu-sorta,.**
- 10.- Bono denda 100 €. Garaikurra. Izadi upategietako Magnum-a. Chocolates Kaitxo sorta bat, Morcillas Ríos produktu-sorta,.**

Tokiko sariak

1.- Bono denda 500 €. Garaikurra, bidaia (VIAJES ARZABE) eta Itsasmendi upategietako magnum-a.

2.-Bono denda 400 €, garaikurra eta Itsasmendi upategietako magnum-a.

3.- Bono denda 300 €. Garaikurra eta Itsasmendi upategietako magnum-a.

4.-Bono denda 250 €, garaikurra eta Itsasmendi upategietako Txakolina.

5.-Bono denda 200 €, garaikurra eta Itsasmendi upategietako Txakolina.

6. -Bono denda 150 €, garaikurra eta Itsasmendi upategietako Txakolina.

7.-Bono denda 100 € garaikurra eta Itsasmendi upategietako Txakolina.

8.-Bono denda 80 €, garaikurra eta Itsasmendi upategietako Txakolina.

9.-Bono denda 70 €, garaikurra eta Itsasmendi upategietako Txakolina.

10.-Bono denda. 50 €, garaikurra eta Itsasmendi upategietako Txakolina.

Oinarrietan adierazitako baldintza guztiak bete eta **lehiaketa egiten den unean Balmasedan erroldatuta dauden** lehiakideek eskuratu ahal izango dute saria.

53. Putxeren Lehiaketaren sari berezia

Lehiaketaren edizioarekin bat datorren sailkapena duen lehiakideari 4 anoako putxera bat emango zaio. Aurten 53. edizioa da.

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarriak onartzea dakar. Alkate jaunak, edo legez egun horretan ordezkatzeko duen pertsonak, aurreko edozein apartatu aldatu ahal izango du Alkatetzaren ebazpenaren bidez.

